

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Aranburu kontseilariak Parlamentura eraman du 2019ko Aurrekontuen proiektua, izapidetua izan dadin

4.010 milioi euroko gastu ez-finantzarioaren muga aurreikusten du, aurten baino 120 milioi gehiago

Asteazkena, 2018.eko urriak 31

Ogasun eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburuk Nafarroako Parlamentuko lehendakariari, Ainhoa Aznarezi, Nafarroako Aurrekontu Orokorren 2019ko proiektua entregatu dio gaur; hau da, 4.010 milioi euroko gastu ez-finantzariaren muga aurreikusten duena, aurreko urtekoa baino %3,11 gehiago, guztira 120,8 milioi euro gehiago. Gainera, datorren ekitaldirako gastu finantzarioa 295 milioi eurokoa izango da. Gizarte-arloek dute pisu gehien aurrekontuan, eta gastu ez-finantzario osoaren %55,6a iristen dira.



Aranburu kontseilariak Nafarroako Aurrekontu Orokorren 2019ko proiektua entregatu dio Parlamentuko lehendakariari.

Proiektua Parlamentuan entregatzearekin batera, navarra.es atarian [Aurrekontuen inguruko dokumentu](#) guztiak argitaratu dira: artikuluak; aurrekontua partidaka; memoria; fitxak programaka; Nafarroako ekonomiaren eta ogasunaren egoera eta aukerak; instituzioak, erakunde publikoak, sozietate eta fundazio publikoak; 2018ko Aurrekontuaren gauzatze-egoera hirugarren hiru hilekoan; generoaren inpaktuari buruzko txostena; Aurrekontuko ZN txostena; erakundearen memoria; CES, CFRL eta CNMA ziurtagiriak; eta Lege-proiektua.

Proiektua astelehenean aurkeztu zen Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean; hots, organikoki Ogasun eta Finantza Politikako Departamentuaren mende dagoen kontsultarako organoan.

[Jada esandako moduan](#), gizarte-arloek dute pisu gehien aurreproiektuan, eta gastu ez-finantzario osoaren %55,6a hartzen dute (aurreko urtean baino 72 milioi gehiago). Zehazki, Hezkuntzaren aurrekontua %5,06 haziko da, Eskubide Sozialena %2,65 eta Osasunarena %2,57.